

**Aretxabaletako IUPI**

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala

2026-2029

# Parte-hartzearen memoria

**Aretxabaletako IUPI**
Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

# Parte-hartzearen memoria

Data
**2025eko Iraila**

Sustatzailea
**Aretxabaletako Udala**

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** %85eko dirulaguntza jaso du

Aholkularitza teknikoa eta idazketa
**Projekta Urbes**




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
**V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.**












# Aurkibidea

**Kronograma orokorra....4**
**Herritarren parte-hartzea: Talde-elkarrizketak....5**
Talde-elkarrizketak - Adinekoak....5
Talde-elkarrizketak - Aretxarte Elkartea....7
Talde-elkarrizketak - Haurren gurasoak....9
Talde-elkarrizketak - UDA Aretxabaleta Kirol Elkartea....11
Herritarren parte-hartze saio irekia: Diagnostikoa....13
Ikastetxeen parte-hartzea - Haurrak eta nerabeak....20
Galdetegi digitala - Herritarrak....24
**IUPIa komunikabideetan....30**

# Kronograma orokorra

| | Data | Udal teknikariak | Ordezkari politikoak | Herritarrak | Haurrak Nerabeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Koordinazio Mahaia | Hainbat alditan 2024/07 eta 2025/09 artean | X | X | | |
| Ordezkari politikoen Mahaia | 2025/03/20 | | X | | |
| Elkarrizketak | 2025/04/01 | | | X | |
| Saio irekia 1 | 2025/04/08 | | X | X | |
| Elkarrizketak | 2025/05/13 | X | | | |
| Saio irekia 2 | 2025/06/18 | | X | X | |
| Galdetegi digitala | 2025/07<br>2025/09 | | | X | |
| Lanketa ikasgeletan | | | | | X |

Hurrengo orrialdeetan parte-hartze prozesuko urrats garrantzitsuenen inguruko informazioa jaso da. Amaieran, Udalak egin dituen komunikazioen lagin bat erantsi da.

# Herritarren parte-hartzea: Talde-elkarrizketak

## HER1 Talde-elkarrizketak - Adinekoak

**Helburua**
- IUPIaren berri ematea.
- Diagnostikoa aurreratzea.
- Proposamenak jasotzea.

**Jarduera mota** Elkarrizketa.

**Noiz** 2025/04/01

**Non** Kirol Etxean.

**Iraupena** 120 minutu.

**Partaideak**
- Herritarrak:
  - Sei emakume (6).
  - Bost gizon (5).
- Projekta Urbes:
  - Patxi Galarraga.
  - Argi Yeregi.

**Landutako gaiak**
- Aipatzekoa da gehienek Euskadi Lagunkoia egitasmoko partaide izan direla. Lanketa horietan besteak beste udalerriko aire libreko espazioen edo eta garraioaren gaineko diagnostikoa egiten dute adineko herritarrek, mugikortasunaren eta irisgarritasunaren inguruko gaiek garrantzi handia hartzen dutelarik (ia txostenaren heren bat).
  - Aretxabaleta Lagunkoia: Diagnostikoaren berrikuspena: 2021eko ekaina, PDF, gazteleraz.
  - Euskadi Lagunkoia egitasmoko lehenengo lanketaren emaitza: 2013ko iraila, PDF, gazteleraz.

**Oinezkoen ibilbideak**

- **Espaloiak beheratzeko** plan moduko bat osatu zen duela urte batzuk, baina hango lanak amaitu gabe daude.
- **Zoladura irristakorra da** espaloi askotan (9 lauki txiko baldosa zaharrak), adib. Eroskitik Ogiberrira jaisten den bidean, edo Araba ibilbideko Botikaren aurrean egindako bi arrapalatan. Askoz hobea da azken aldian zenbait lekutan jarri dena (lauki bakarra, 30*30cm), adib. Loramendiko biribilgunetik Errekabarren aldera ibaiaren ondoako pasealekuan jarri zena, 2020 urtearen bueltan.
- **Mantentze- eta garbiketa-lanak** hobetu behar dira espaloietan.
- **Santakurtzeko** eraldaketarekin irisgarritasuna asko hobetu da.
- **GSR egoitzaren** eta herrigunearen arteko ibilbideak eta espaloiak hobetu behar dira: zuzenean joan nahi eta hara-honaka ibili beharra dago, zubiko espaloiak estuak dira, tarteka zeharkako maldak daude (zebrabideetako sarbideetan espaloiak beheratzen denean sorten dira malda hauek, gurpil aulki astuna eramatea asko zailduz), baldosa hautsiak daude egoitzaren inguruan...
- **Oinezko ibilbideak osatzeko edo hobetzeko** hainbat proposamen jaso dira: Santutxu eta Lausitta artean, Udaletxetik zubira, Larrino eta Bedoña artean, etab.

**"Bidegorriak", bizikletak eta patineteak**

- **Bizikleta eta patineteekin elkarbizitza** ez da erraza, batez ere atzetik etortzen direnean (ez ditugu ikusten ez eta entzuten): adib. bidegorrietan edo Mitarte-Durana-Otaloran kontrako norantzan dabiltzanean.

- **Mantentze- eta garbiketa-lanak** hobetu behar dira: Eskoriatzara bidean, askoz garbiagoa dago Almenetik gora, handik behera baino.
- **Urkulura** paseatzera joateko hobekuntzak egin beharko lirateke: Basabe aldean saihesbidera sarbidea kendu, GI-627-30 errepidean zebrabidea jarri, oinezkoak babesteko hesiaren diseinua aldatu (zutoinek oinezkoen ibilbidea estutzen dute eta gainera min egiteko arriskua eragiten dute), Aozaratzara ibilbidea egokitu, Bolinaga eta Areantzaren arteko lotura egin (lur-saila publikoa da?), urtegiko bueltan oinezkoen ibilbide segurua egokitu...

### Garraio publikoa

- **Autobuseko ateetako koska** altuegia da, igotzea zailago eta jaistea arriskutsuago eginez: espaloira gehiago hurbildu beharko lirateke autobusak, edo bestela kasu guztietan makurtu egin beharko lirateke.
- **Ticketak erosteko sistema** ez da irisgarria: internet bitartez moldatzen ez denak, ez dauka Arrasatera joatea beste erremediorik.
- **Geralekuetan informazioa** hobetu behar da, eta ordutegiak jarri.
- **Lausittako geralekuan** argiztapena hobetu behar da.

### Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak

- **Otalorako** esku-hartzeak ez du nahikoa baretu trafikoa (trafikoa azkar pasatzen da) eta segurtasun-eza hautematen da oraindik. Lorontziak handiegiak dira (adib. haurrak ez dira ikusten) eta gainera tarte batean ez daude —Udaletxearen inguruan—, kalearen alde hori oinez joateko arriskutsua delarik.
- **Udaltzaingoak** diziplina gogorrago ezarri beharko luke, irizpide argiekin.

### Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoak, hiri-altzariak...

- **Edukiontzietako irisgarritasuna** eta erabilgarritasuna baxua da: batzutan kokapena hobetu behar da (espaloiarekin harremana, inguruko oztopoak...), bestetan inguruko garbitasuna (erabiltzaile batzuek lurrean uzten dituzten zaborrek eragiten dituzte oztopoak), baina edozein kasutan edukiontzi irisgarriagoak behar dira, ahoa jaitsiz (oso goian dago) eta estalkia irekitzeko modua hobetuz (indar gehiegi eskatzen du pedalak, eta gainera oso gutxi altxatzen da).
- **Udaletxea** ez da irisgarria.



## HER2 Talde-elkarrizketak - Aretxarte Elkartea

**Helburua**

— IUPIaren berri ematea.
— Diagnostikoa aurreratzea.
— Proposamenak jasotzea.

**Jarduera mota**

Elkarrizketa.

**Noiz**

2025/04/01

**Non**

Kirol Etxean.

**Iraupena**

90 minutu.

**Partaideak**

— Herritarrak:
  - Lau emakume (4).
— Projekta Urbes:
  - Patxi Galarraga.
  - Argi Yeregi.

**Landutako gaiak**

Guztiak dira merkariak, guztiek denda Mitarte-Durana ardatzean dutelarik.

Azoka dela-eta, astelehena egun ona da merkatarientzat.

**Oinezkoen ibilbideak**

- Duranan irisgarritasun arazoak daude: adokinen artean koskak handiak dira eta espaloiak ez dauka beheratutako gunerik (ia 200 metroan, espaloira Errekabarren aldean igoz gero, Mitarteraino ez dago jaisteko aukerarik).
- Herriguneko zebrabideak orokorrean ondo daude.
- Merkatariek oztopoak sortzen dituzte oinezkoen ibilbideetan: astoak, kartelak, produktuak...
- Oinezkoen eremuetan terrazatako mahaiek oztopoak sortzen dituzte, batez ere espazio publikoan metatzen dituztenek behin taberna itxitakoan.
- Oinezkoen eremuetan baloiek eragozpenak sortzen dituzte.

**“Bidegorriak”, bizikletak eta patineteak**

- **Bizikletak azkarregi** pasatzen dira Txarapeako espaloietan behera.
- **Patinete elektrikoek** beldurra ematen dute, Duranan batez ere. Udaltzainek atentzioa deitzen dieten garaietan, baretzen dira.

**Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak**

- **Mitarte-Durana oinezkotu** zenetik, bezero gutxiago dituzte: ibilgailuen sarbidea erraztu behar da, hornitzaileena zein erosleena.
- **Duranan** sarbidea mugatua dago: 7:10ean zabaltzen da (kioskokoak kentzen ditu piboteak), eta 14:00etan itxi (udaltzaingoak jartzen ditu). Sartu bai, baina herritarrek ez omen dute baimendua aparkatzea (zalantza: 15 minutuz azpitik bai, ala?).
- **Mitarten** oinezkotu den gunean ez dago kotxez sartzerik.
- **TAO sistema** jarri Mitarte-Duranan? Ordu bete adibidez?
- **Norantza bakarreko kaleetan** oinarritutako trafiko-sarea dauka herriguneak: arriskutsua da, edozein ezbehar gertatuta ere trafikoa blokeatzen baita.

**Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoak, hiri-altzariak...**

- **Komun publikoari** (Loteria ondoan) erabilera desegokia ematen zaio gehiegitan.

_ **Argiztapen** gehiago behar da merkataritza sustatu nahi bada.
_ **Argiztapenak** huts egiten du gehiegitan, batzutan kale batzutan, beste batzutan besteetan.
_ **Txakurren** jabe batzuren jarrera desegokia da: denda barruan aske edukitzen dituzte edo soka luzeegiarekin.

## HER3 Talde-elkarrizketak - Haurren gurasoak

**Helburua**

— IUPIaren berri ematea.
— Diagnostikoa aurreratzea.
— Proposamenak jasotzea.

**Jarduera mota**

Elkarrizketa.

**Noiz**

2025/04/01

**Non**

Kirol Etxean.

**Iraupena**

120 minutu.

**Partaideak**

— Herritarrak:
  - Bost emakume (5).
  - Gizon bat (1).
— Projekta Urbes:
  - Patxi Galarraga.
  - Argi Yeregi.

**Landutako gaiak**

— Kurtzebarrin, Basabeazpin, Almenen eta Pausokan haurrak dituzten gurasoek hartu dute parte elkarrizketan.

**Oinezkoen ibilbideak**

- **Helmuga nagusienak:** Herriko Plaza-Musika Eskola, Irusta parkea/kantxa, Ilargi-Ludoteka, Kirol Etxea, eskola ondoko kantxa.
- **Okerren dauden eskolak:** Pausoka (autobusa beste kale batetik pasa?) eta Basabeazpi.
- **Estrategia,** ikastetxeka baino hobeto, ardatzen arabera: haurren autonomia helburu hartuta, ardatz guztiak zeharkatu**.**
- **Zebrabideetako ikusgaitasuna** hobetu behar da, irizpide bat ezarri eta herrigunea goitik behera orraztuz: edukiontziak kenduz, argiztapen espezifikoa jarriz (zoruan?)...
- **Zebrabide kritikoetan** abiadura jaitsi arazi behar da: adib. Kurtzebarri parean.
- **Araba ibilbideko espaloiak** dira orokorrean hobekuntza gehien behar dutenak.
- **Araudia argitu** oinezko eremuetan: Patinetea? Bizikleta?

**“Bidegorriak”, bizikletak eta patineteak**

- **Patinete elektrikoak:** mutilak 14 urterekin hasten dira eskatzen.

**Garraio publikoa**

- **“Gautxoria” asteburuetan:** orduoro pasatzen da Eskoriatza eta Eibar artean.

**Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak**

- **Kurtzebarriko esku-hartzea** egokia izan da, irizpide horri eutsi behar zaio etorkizunean.
- **Basabeazpin 8:55etan** kotxeak espaloira igotzen dira. Herrigunean bizi direnek ez lukete kotxea hartu behar seme-alabak eskolara eramateko: “kotxerik gabeko eremu” bat ezarri eskola bakoitzaren inguruan?
- **Eroskiko aparkalekua** esku-hartze egokia izan da.

**Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoak, hiri-altzariak...**

_ **Kurtzebarriko patioko argiztapena,** Udalak mahai gainean duen proiektua omen da.



## HER4 Talde-elkarrizketak - UDA Aretxabaleta Kirol Elkartea

**Helburua**

— IUPIaren berri ematea.
— Diagnostikoa aurreratzea.
— Proposamenak jasotzea.

**Jarduera mota**

Elkarrizketa.

**Noiz**

2025/04/01

**Non**

Kirol Etxean.

**Iraupena**

90 minutu.

**Partaideak**

— Herritarrak:
  _ Hiru gizon (3).
— Projekta Urbes:
  _ Patxi Galarraga.

**Landutako gaiak**

**Oinezkoen ibilbideak**

_ --

**"Bidegorriak", bizikletak eta patineteak**

_ **Patinetez** hurbiltzen dira herriko gazteak, gehiago kotxez Eskoriatzakoak.
_ **Patinete elektrikoak:** mutilak 14 urterekin hasten dira eskatzen (DBH3ko 25 ikasle dituen futbol taldean, 25etik 5 mutil patinete elektrikoan joaten dira).
_ **Aterpedun aparkaleku bat** egin beharko litzateke.

**Garraio publikoa**

_ --

**Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak**

_ **Entrenamenduetara kotxez** etortzen hasten dira seniorretan, proportzioan gehiago dira eskoitzarrak.
_ Txatarreriako bidea orain baino gehiago erabiliko da Kirol Etxeko bidea oinezkotzen bada: birutek eragindako arazoak aurreikusi (gurpilak zulatzea, karrozeriatan pinportak...).
_ **Arratsaldetan aparkatzeko** ALE ingurua erabiltzen da.
_ **Larunbatetan aparkatzeko** Fagor Ederlaneko aparkalekua erabiltzen da.
_ **Bigarren ilaran** aparkatzen dute batzuek, nahikoa aparkaleku egon arren (Arrasatekoak dira elkarrizketako partaideak, hauen iritziz Aretxabaletan ez dago aparkatzeko inongo arazorik).

**Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoak, hiri-altzariak...**

_ **Gurpildun aulkien erabiltzaile** diren ikusleek ez daukate aterperik: gradara joan ahal izateko sarbide berria eta arrapala eraiki beharko lirateke.
_ **Anbulantzia futbol zelaira** sartzeko sarbidea konpondu beharra dago: zoruaren geometria okerraren ondorioz, sartu bai baina irteteko arazoak izan dituzte behin baino gehiagotan.
_ **Bi futbol zelaien arteko ate irristakorrean** ate arrunt bat egokitu: ohiko sartu-irteeratarako nahikoa litzateke, osorik zabaltzen ibili gabe.
_ **Aldagela berriak** behar dituzte, irisgarritasuna eta genero kontuak txertatuz.

_ **Frontoia irisgarriagoa** egiteko obra bat hastear dago.
_ **Kirol inklusiboko kirol kardunaldiak** egiten dituzte urtean behin: “Genuine” Topaketa (>21 urte), Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (<18 urte).
_ **Kirol Etxean kirol inklusiborako** eskaintza badago: kantxan, igerilekuan.



## HER5 Herritarren parte-hartze saio irekia: Diagnostikoa

**Helburua**

— Egindako jarduketa-proposamenei buruzko ekarpenak jasotzea.
— Proposamen berriak jasotzea.

**Jarduera mota**

Parte-hartze saio irekia

**Non**

Arkupe Kultur Etxean.

**Noiz**

2025-04-08

**Iraupena**

120 minutu.

**Partaideak**

— Hogeita hiru herritar (23):
  - Zazpi emakume (7).
  - Hamasei gizon (16).
— Projekta Urbes:
  - Patxi Galarraga.
  - Miren Vives.

**Deialdiak**




[Udalaren profila Instagramen, 2025/04/04]




[Goiena:]

**Lanketa**

Saiora agertu ziren **23 partaideak bost mahairen inguruan** jarri ziren (kolore arroxako zutabeak taulan):

| | | |
|---|---|---|
| **1** | Herritarrak, orokorrean | 6 (3 emak. + 3 gizon) |
| **2** | Haurren gurasoak | 6 (1 emak. + 5 gizon) |
| **3** | Haurren gurasoak | 5 (2 emak. + 3 gizon) |
| **4** | Adinekoak, guztiak Basotxo Elkartekoak | 3 (1 emak. + 2 gizon) |
| **5** | Ordezkari politikoak, guztiak gobernu taldekoak | 3 (0 emak. + 3 gizon) |
| **(**)** | Saioaren ordutegia dela-eta, ez da merkatari edo ostalaririk izan. Aurreko astean Aretxarte Elkartekoekin izandako talde-elkarrizketan jasotako ondorio nagusia (**) ikurrarekin adierazi da taulan, eta halaxe helarazi zaie saioko partaideei. | |

Taldeen ekarpenak jasotzeko partaideei eskaini zaizkien **bost esparruak** (kolore griseko zutabeak taulan):

- **O** Oinezkoen mugikortasuna.
- **B** “Bidegorriak”, bizikletak eta patineteak.
- **P** Garraio publikoa.
- **K** Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak.
- **I** Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoak, hiri-altzariak...
- **(*)** Seigarren esparru bat ere eskaini zaie saioko partaideei, zehaztu gabe. Bi ekarpen egin dituzte, taulan (*) ikurrarekin adierazi direnak.



## Lanketaren emaitzak

| **Basabe-Copreci** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eroski-Azbe inguruan trafikoarekiko segurtasuna hobetu. | | | | | | | | | | |
| Basaben trafikoa murriztu, Copreci atzera bideratuz (hau konpondu eta argiztatu). | | | | | | | | | | |
| Basabe norantza bakarrekoa jarri eta Copreci atzekoa ezarri herrigunetik irteteko. | | | | | | | | | | |
| **Erdialdea** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Durana kaleko irisgarritasuna hobetu. | | | | | | | | | | |
| Durana-Mitarten soilik zamalanetara mugatu sarbidea. | | | | | | | | | | |
| Durana kalean gidari batzuk 15 minutu baino askoz denbora luzeagoan uzten dute kotxea aparkatuta. | | | | | | | | | | |
| (**) Tokiko merkataritza sustatu nahi bada, Durana eta Mitarte kaleetara sarbidea erraztu behar zaie, hornitzaielei zein erosleei (Aretxarteko talde-elkarrizketako ondorio nagusi hau saio irekian adierazi zitzaien partaideei). | | | | | | | | | | |
| **Hegoaldea** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Herrigunea "luzatu" Mitartetik Portasolerantz, espaloiak hobetuz. | | | | | | | | | | |
| Araba ibilbidean trafikoaren abiadura moteldu. | | | | | | | | | | |
| Araba-Loramendi bidegurutzea hobetu. | | | | | | | | | | |
| Markole-ALE bidegurutzea hobetu. | | | | | | | | | | |
| Zaraia inguruan espaloiak egokitu eta zebrabideak gehitu. | | | | | | | | | | |
| (*) Zaraia-Aralar-Gorbeia inguruetan zuhaitzak landatu. | | | | | | | | | | |
| **Txarapea** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Trafikoaren abiadura moteldu. | | | | | | | | | | |
| Trafikoarekiko segurtasuna hobetzeko, ikuspena hobetu: argiztapen eskasa, autokarabanak aparkatuta, ikus-eremu mugatuak garajeetako irteeratan... | | | | | | | | | | |
| Txarapeako goiko aldearen eta herrigunearen arteko irisgarritasuna hobetu: adib. kiroldegiarekin lotzen duen espaloia estua da eta egokitu gabe dago. | | | | | | | | | | |
| Eserlekuak jarri, luzera osoan ez baitago atsedengunerik. | | | | | | | | | | |
| **Iparraldea** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Otaloran zebrabidea jarri Sarasate aldera. | | | | | | | | | | |
| Otaloran segurtasuna hobetu izozkitegi parean. | | | | | | | | | | |
| Otaloratik Arkupe atzeko aparkalekura sarbidea berreskuratu. | | | | | | | | | | |
| Herrigunea "luzatu" Otalora kaleko 19 zenbakitik iparralderantz (Beatriz frutategitik edo Bedarreta tabernatik aurrera). | | | | | | | | | | |
| **Lausitta-GSR** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| GSR inguruko espaloiak hobetu: zeharkako maldak, zubiko espaloiaren zabalera... | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GSR egoitzak kanpotik kotxez datorren bisitari ugari jasotzen du: inguruan aparkatzen dutenez, auzoko bizilagunak lekurik gabe geratzen dira. | | | | | | | | | | |
| **Urkulura bidea** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Basabe aldetik saihesbidera sartzeko lotura kendu. | | | | | | | | | | |
| Zebrabidea jarri (GI-627-30 errepidean) eta oinezkoak trafikotik babesteko jarrita dagoen hesia hobetu (tarte estuegia uzten du eta min euskarriekin min har daiteke). | | | | | | | | | | |
| Herrigunetik Aozaratzako “bidegorrira” ibilbidea osatu. | | | | | | | | | | |
| **Plangintza-estrategia** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| (*) Bailarako eskala kontuan hartu. | | | | | | | | | | |
| **“Bidegorriak”, bizikletak eta patineteak** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Bidegorria luzatu Lausittatik Santutxura. | | | | | | | | | | |
| Lausittan ibai ondoko pasealekua bidegorri bihurtu, Santakurtzeko bidegorriarekin elkartuz (erdigunean ahal bada) eta institutu berriraino luzatuz. | | | | | | | | | | |
| Bidegorria industrialdetik kalera ekarri: Basabeazpi ingurutik farmaziara, eta Ibarra jatetxetik berriz industrialderantz. | | | | | | | | | | |
| Bidegorriak ikastetxe eta haurren jolas-guneen ondo-ondotik pasatzea ekidin: adib. Basabeazpi, Kurtzebarri. | | | | | | | | | | |
| Bia Berdea egokitu. | | | | | | | | | | |
| Urkulu egokitu. | | | | | | | | | | |
| Bizikleta- eta patinete-aparkaleku gehiago jarri. | | | | | | | | | | |
| Bidegorrietako zebrabideak seguruagoak egin. | | | | | | | | | | |
| Bizikletak eta patineteak bidegorrian arautu. | | | | | | | | | | |
| Adinekoek kotxeei baino beldur handiagoa diegu bizikleta eta patineteei, oinezkoen eremuetan ere ibiltzen baitira, eta batez ere atzetik agertzen direnean: “bidegorrietan” lehentasuna oinezkoek izan beharko lukete. | | | | | | | | | | |
| **Garraio publikoa** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Eskualdea Donostia, Bilbo zein Zumarragarekin lotzen duten autobus-lerroak Eskoriatzatik eta Eskoriatzaraino. | | | | | | | | | | |
| Autobusa herriko erdigunetik atera: a) Copreci atzetik pasa, eta b) Unibertsitateko biribilgunean buelta eman eta saihesbidera. | | | | | | | | | | |
| Autobuseko lehen koska adinekoentzako altuegia da: igotzea zaila da, eta jaistea arriskutsua. | | | | | | | | | | |
| Autobus geltokiak hobetu: handiagoak egin eta plataforma galtzadara zabaldu. | | | | | | | | | | |
| Autobusaren ordutegiak unibertsitatearen ordutegiekin bateragarri egin. | | | | | | | | | | |
| Ordutegiak hobetu: maiztasuna handitu eta puntualtasun gehiago. | | | | | | | | | | |
| Autobus ticketak erosteko sistema ez da erosoa izango, baina adinekoentzat, gainera, ez da irisgarria. | | | | | | | | | | |
| Taxiak ez du zerbitzurik ematen herritarren joan-etorri laburretarako. | | | | | | | | | | |

| **Ikusgaitasuna zebrabideetan** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikusgaitasuna hobetu (edukiontziak kenduz, argiztapen espezifikoa jarriz…): adib. Almen, Santutxu, Markole-ALE… | | | | | | | | | | |
| **Aparkaleku falta** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Autokarabanentzako disuasio-aparkalekua jarri. | | | | | | | | | | |
| **Trafikoaren eta aparkalekuen kudeaketa** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Durana kalean gidari batzuk 15 minutu baino askoz denbora luzeagoan uzten dute kotxea aparkatuta. | | | | | | | | | | |
| Autokarabanak Txarapea ibilbidean: bizilagun batzuek bertan uzten dute aparkatuta. | | | | | | | | | | |
| Disziplina ezarri behar da: gidari batzuk Loramendiko espaloia aparkatzen dute, garajetik irten eta biribilgunean kontra-eskuan hartzen dute… | | | | | | | | | | |
| **Espazio publikoa eta hiri-altzariak** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Komun publikoak jarri: parkeetan, Santutxuko ermita inguruan? | | | | | | | | | | |
| Estalitako guneak jarri. | | | | | | | | | | |
| Aterpea jarri komentuko parkean. | | | | | | | | | | |
| Errekara sarbideak egokitu (erori den norbait/zerbait atera ahal izateko). | | | | | | | | | | |
| **Mantentze-lanak eta garbiketa** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Espaloietako mantentze-lanak hobetu. | | | | | | | | | | |
| Oinezko ibilbideak eta espaloiak hobeto garbitu, irisgarritasuna hobetzeko eta erortzeko arriskua murrizteko: zaborra, txakur-kakak, basa (euri-hustubideak garbi ez mantentzeagatik)… | | | | | | | | | | |
| Hiri-altzarien mantentze-lanak hobetu. | | | | | | | | | | |
| Barandak txukundu. | | | | | | | | | | |
| **Txakurrak** | O | B | P | K | I | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Herriguneko berdeguneak ez dira erabilgarriak, txakurren gorotzak direla-eta. | | | | | | | | | | |
| Txakurrak herrigunean lotuta eraman arazi. | | | | | | | | | | |
| Adinekoek beldurra diegu txakurrei, erortzeko arriskua dela-eta: bai aske doazenean, bai eta soka luzearekin lotuta daramatzatenean ere (txakurren inguruko txosten berezi bat argitaratu zuten 2019an, Euskadi Lagunkoia egitasmoaren barruan). | | | | | | | | | | |




Aretxabaletako
Mugikortasun Plana 2026-2029
Diagnostikoa
Diagnóstico
Proposamenak
Propuestas










kaleak denonak
Oinezkoen mugikortasuna
Movilidad peatonal

## GD1 Ikastetxeen parte-hartzea - Haurrak eta nerabeak

**Helburua**

— Haur eta nerabeen ikuspegitik herrigunean gehien baloratzen dituzten lekuen mapa osatzea. Honen helburua da ikustea zin diren bereziki zaindu beharreko puntuak, bai eta horien arteko joan-etorriak ere.
— Haur eta nerabeen ikuspegitik herrigunean trafikoari lotutako arrisku-gune nagusien mapa osatzea.
— Bi mapa horiek elkar elikatzen dute, eta bata bestearen gainean jarrita hauteman daitezke gune gatazkatsuenak.
— Ariketa ikasgeletan egin dute, tutoreari emandako material eta gidalerroei jarraituz. Taldekako ariketa izan da, eztabaida eta lehenesketa sustatzea aldera.

**Jarduera mota**

Talde-dinamika.

**Iraupena**

Ordu bete.

**Partaideak**

— Lehen Hezkuntzako 4-5-6 mailatako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak, taldetan jarrita.

— Guztira 90 talde.

**Erabilitako dokumentuak**

— Txantiloiak, talde bakoitzak bana.
— Proiekzioa, ikasgelatan proiektua aurkezteko eta dinamikarako jarraibideak emateko.


Kurtzebarri Herri Eskola

Maila:
Gela:

Zenbat zarete taldean? Neskak: Mutilak: Ez neska, ez mutil:
Zenbat bizi zarete... Aretxabaletan? Eskoriatzan? Ez batean, ez bestean?



**1 Adostu taldean: Herrian "aire librean" edo kanpoan dauden 3 leku onenak, zuentzat**

| | Eman 0, 1, 2 edo 3 puntu, leku bakoitzari lau aldiz | | | | Idatzi 3 hitz leku bakoitzaren ezaugarriak edo berezitasunak adierazteko | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jolasteko, kirola egiteko | Elkartzeko, lasai egoteko | Eguraldi onerako | Eguraldi txarrerako | 1. hitza | 2. hitza | 3. hitza |
| 1 | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | |

**2 Trafikoa dela eta, herriko leku batzuk EZ DIRA seguruak edo atseginak oinez, patinetez edo bizikletaz ibiltzeko.**

| Adostu taldean: Zein dira 3 leku okerrenak, zuentzat? | Zergatik? |
|---|---|
| 1 | |
| 2 | |
| 3 | |

*LH eta DBHko ikasleen ekarpenak prestatutako txantiloia.*




*LHko ikasleei jarraibideak emateko prestatutako proiekzioaren irudi bat.*




*LHko ikasleei jarraibideak emateko prestatutako proiekzioaren irudi bat.*



Aretxabaleta Lanbide Eskola

Atxabaltan kaleak denONAK

Maila:
Gela:

Zenbat zarete taldean? Neskak: Mutilak: Ez neska, ez mutil:
Zenbat bizi zarete... Aretxabaletan? Eskoriatzan? Ez batean, ez bestean?

**Idatzi zuen ekarpenak gai hauen inguruan, gehienez 8:**

A. **Oinezkoen mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna.**
B. **"Bidegorriak", bizikletak eta patineteak.**
C. **Garraio publikoa.**
D. **Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak.**
E. **Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoa, hiri-altzariak...**

1
2
3
4
5
6
7
8

*Lanbide Hezkuntzako ikasleen ekarpenak prestatutako txantiloia.*



Atxabaltan kaleak denONAK

**Aretxabaletako Mugikortasun Plana 2026-2033**

Udalak parte-hartze saio desberdinak antolatu ditu Mugikortasun Plana herritarrekin batera lantzeko. Herritarren iritziak eta beharrak bere aniztasunean jasotzeak parte-hartze prozesuan adinartekotasuna eta genero-ikuspegia txertatzea eskatzen du, besteak beste. Proposatzen dizuegun taldekako ariketa hau ALEko ikasleen ekarpenak jasotzera bideratu dugu, honako gaien inguruan:

A. Oinezkoen mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna.
B. "Bidegorriak", bizikletak eta patineteak.
C. Garraio publikoa.
D. Kotxeak herrigunean: trafikoa eta aparkalekuak.
E. Irisgarritasuna, mugikortasunaz haratago: espazio publikoa, hiri-altzariak...

Eskertuko genizuke ariketa hau zure ikasgelan egin eta fitxak jasoko bazenitu. Informazio hau diagnostikoan txertatuko dugu, haiekin jarduketa-proposamenak lantzeko.

## Tutoreentzako jarraibideak

### Nola antolatu taldeak?

1. **Jarri mesedez 4-5-6 kideko taldetan,** talde bakoitza mahai baten inguruan, ahal den neurrian taldeak elkarrengandik bananduz.
2. **Garrantzitsua da taldeak ez izatea mistoak,** emakumeen eta gizonen erantzunak banakatuta jaso ahal izateko. Bai bait dakigu oraindik ere sexuaren/generoaren arabera bizi-baldintzak eta ohiturak desberdinak direla.
3. **Atxabaldarrez osatutako taldeak batetik, "kanpotarrez" osatutakoak bestetik.** Honetan ere, garrantzitsua da taldeak ez izatea mistoak. Nolabait esateko: ez sartu "kanpotarrik" atxabaldarren taldeetan, eta ez sartu atxabaldarrik "kanpotarren" mahaietan.

**Proiekzioa.** PDF fitxategi honetako hurrengo 2 orriak proiekta ditzakezu ariketa gidatzeko.

### Zer eskatzen dizuegu?

4. **Ekarpenak nahi bezala adierazi:** arazo bezala zein aldaketarako proposamen gisa, leku zehatzei buruzkoak izan daitezke, herrian orokorrean gertatzen direnak...
5. **Heldu gaiari:** gogoan izan, proiektu honetan Aretxabaletako mugikortasuna eta kaleetako irisgarritasuna hobetzeko ekarpenak behar ditugula.
6. **Gai bakoitzaren inguruan ekarpen bat gutxienez.** Ezkerrean ikus ditzakezue proiektu honetako 5 gaiak.
7. **Gehienez 8 ekarpen talde bakoitzeko.** Orriaren atzealdean zirriborroa egin dezakezue, baina amaieran gehienez 8 ekarpen adostu beharko dituzue taldean.

*Tutoreentzako jarraibideak jasotzen dituen orria.*

## Emaitzak




*Ikasleen ekarpenak mapa gainean jarri dira. Koloreen banaketak informazio esanguratsua eskaintzen du: mapan sartuz gero, puntu bakoitzean klikatu eta informazioa zabaldu daiteke. Azpimarragarria da* ***90 taldek hartu duela parte.*** *Mapara esteka:*
*https://www.google.com/maps/d/edit?mid=1POH7RqPl8gSoBI5Gj6BP0_BX0-3VO6I&ll=43.03102101957392%2C-2.494696003443750 4&z=17*

| GD2 | Galdetegi digitala - Herritarrak |
| --- | --- |
| **Helburua** | —IUPIaren berri ematea.<br>—Egindako jarduketa-proposamenei buruzko ekarpenak jasotzea.<br>—Proposamenak jasotzea. |
| **Jarduera mota** | Galdetegi digitala. |
| **Iraupena** | 2 aste (2025eko uztailaren 17a eta 30a artean.)<br>Bigarren txanda bat egiteko asmoa dago irailaren 16a eta 22a artean. |
| **Partaideak** | —244 herritar:<br>_118 emakume.<br>_124 gizon.<br>_2 beste bat. |
| **Erabilitako dokumentuak** | —Galdetegia: http://www.labur.eus/atxabaltan-kaleak-denonak-1 |



## Galdetegia

**ONDORIO NAGUSIAK**

Diagnostiko tekniko eta partekatuaren bitartez zenbait ondorio atera ditugu. Hauetan oinarrituz TRAFIKO ZIRKULAZIOEN BERRANTOLAKETA PROPOSATU DA ETA APARKALEKUAK BIRKOKATU, KOPURUA MURRIZTU GABE.

Adierazi, mesedez, zenbateraino zauden ados esaldi hauekin:

**Aretxabaletako hainbat kaleren ezaugarriek (galtzada zabala, trazadura zuzen eta luzeak, bidegurutze eta zebrabideen konfigurazioa...), trafikoaren abiadurarekin batera, arriskuan jartzen dituzte oinezkoak, haurrak eta adinekoak batez ere.** *



| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

**Aretxabaletan industrialdeek duten kokapena dela-eta, herriguneko zenbait kaletan kamioi gehiegi igarotzen da, arrisku-uneak sortuz.** *



| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

**Aretxabaletako gune askotan trafikoak espazio gehiegi hartzen du, dagokiona zein ez dagokiona (joan-etorrietan, aparkatzean).** *



| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

**Aretxabaletan nahikoa aparkaleku dago. Leku edo ordu okerrenetan ere, oinez 5 minutu edo gutxiagoan egiteko moduko distantziara ia beti topa daitezke aparkaleku hutsak.** *



| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

**Santakutz kalean egindako eraldaketarekin lortu da trafikoa baretzea eta oinezkoentzat espazio seguruagoa eta irisgarriagoa izatea.** *



| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

*Diagnostiko teknikotik zein lehenengo parte-hartze saioko ekarpenetatik abiatuta, zenbait ondorio aurkeztu zaizkie herritarrei galdetegian (goiko bi irudietan 5 ikus daitezke), horien inguruko adostasun-maila neurtzeko. Zerrendaren amaieran aukera eman zaie herritarrei diagnostikoaren inguruan ekarpenak egiteko.*

**LABORALA-LAUSITTA:**

**Diagnostikoaren ondorio nagusiak:**

- Laboralaren ondoko bidegurutzearen ingurua eta oinezko ibilbideak ez dira seguruak, ez erosoak ez eta atseginak ere.

**Diseinu-irizpideak:**

- Bidegurutzetik zubirainoko eremua oinezkotu.
- Herriko plazaren aldeko Otalora-Durana lotura oinezkotu.
- Eremua atsedenerako eta topaketarako egokitu, Udaletxe ondoko lorategian hasi eta komentuko parkeraino doan sekuentziaren atal gisa, ibaiarekin harremana indartuz.

**Aldaketak trafikoan:**

- Motordun ibilgailuan Lausittara sarrera-irteera guztiak Txarapea aldetik, horretarako kalea zabalduz.
- Eremua kotxez zeharkatzeko bi salbuespen: larrialdiak batetik, eta Larrin plazako 2. zenbakiko garajeetako erabiltzaileak bestetik (zubitik sartu eta irten).






**Zenbateraino zaude ados proposamen honekin?** *

| | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batere ados | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | ○ | erabat ados |

**Adierazi zein jarduketa zehatzekin zauden ados:**



☐ 1.- Laboraleko bidegurutzearen eta zubiaren arteko tartea oinezkotu, eleizaren eta Udaletxearen aurreko plaza Larrin plazarekin elkartuz.



☐ 2.- Herriko plazaren aldeko Otalora-Durana lotura oinezkotu: gaur egun “tartetxo batez” kotxea uzteko erabiltzen den espazioa oinezkoentzako irabaziko litzateke, jarduketa Duranarekin lotuz.



☐ 3.- Zirkulazioari irabazitako espazio batzu naturalizatu: zoladura iragazkorrak ezarri, zuhaitzak edo zuhaixkak landatu...



☐ 4.- Irabazitako espazio publikoak hiri-altzari eroso eta atseginekin ekipatu.



☐ 5.- Obra egiteko finantzaketa lortu arte itxaron gabe, baliabide merkeak erabiliz behin-behineko esku-hartzea egin: alderdi positiboenak gozatzeko eta gabeziak zuzentzeko.

**Eremu honetarako zerbait gehitu nahi zenuke?**

Zure erantzuna

*Hainbat guneri buruzko proposamenak erakutsi zaizkie herritarrei: planoetan lehen/orain moduko irudi bikoteaz gain, GIF baten bitartez adierazi da eraldaketa, proposamena ulergarriago egiteko. Gainera, jarduketa osatzen duten esku-hartze nagusienak zerrendatu dira, hitzez zein irudiz azaldu direlarik. Azkenik, ingurune eta proposamen horietako bakoitzaren inguruan ekarpenak egiteko aukera ere eskaintzen du galdetegiak.*

## Emaitzak

Irisgarritasunaren aldeko jarduketa-proposamenek orohar balorazio altua jaso dute. Eztabaida korapilatzen da oinezkoen beharrizanak hobetzeko (irisgarritasuna, segurtasuna, erosotasuna), motordun ibilgailu pribatuen (izan trafikoa, izan aparkalekuak) gainean eragiten denean. Alegia, jarduketa txikiek ez dute oposiziorik izaten, baina kaleen egiturari eragiten zaionean erresistenziak azaleratzen dira.







*Goiko bi irudietan, diagnostiko bateratuaren inguruko adostasunaren neurketaren lau adibide.*

## Laborala - Lausitta

**Jarduketa honen bataz-besteko puntuazioa:** La puntuación media de esta actuación: **2,8**





**Orain** Ahora

**Proiektua** Proyecto




## Laborala - Lausitta

%55



**Zirkulazioari irabazitako espazio batzu naturalizatu: zoladura iragazkorrak ezarri, zuhaitzak edo zuhaixkak landatu...** Renaturalizar algunos espacios ganados al tráfico: incorporar pavimentos permeables, plantar árboles o arbustos...

%53



**Irabazitako espazio publikoak hiri-altzari eroso eta atseginekin ekipatu.** Equipar los espacios públicos ganados con mobiliario urbano cómodo y agradable.

%50



**Laboraleko bidegurutzearen eta zubiaren arteko tartea oinezkotu, eleizaren eta Udaletxearen aurreko plaza Larrin plazarekin elkartuz.** Peatonalizar el tramo entre el cruce de la Laboral y el puente, conectando la plaza situada frente a la iglesia y el Ayuntamiento con la plaza Larrin.

%42



**Herriko plazaren aldeko Otalora-Durana lotura oinezkotu: gaur egun "tartetxo batez" kotxea uzteko erabiltzen den espazioa oinezkoentzako irabaziko litzateke, jarduketa Duranarekin lotuz.** Peatonalizar la conexión Otalora-Durana en el lado de Herriko Plaza: la mayoría que camina ganaría un espacio que actualmente se utiliza para dejar el coche "por un momento", conectando la actuación con Durana.

*Goiko bi irudietan, jarduketa baten bi balorazio: bata, globala (gainean); eta bestea, jarduketa osatzen duten esku-hartze bakoitzarena (azpian).*

## Parte-hartzaileak




*Galdetegi digitaleko partaidetzaren laburpen-koadroa, kopuruak partaideen ezaugarrien arabera banakatu direlarik. Kontuan izan behar da desgaitasunen bat duten 9 pertsonek hartu dutela parte galdetegian (emakumeak gehienak). Bestalde, gehiago dira adin txikiko baten edo mendekotasun egoeran dagoen norbaiten zaintzaile gisa identifikatu direnak.*

# IUPIa komunikabideetan






Aretxabaletako Udala

Herria ezagutu · Udala · Zure ze

Sarrera / Aktualitatea / Atxabaltan, kaleak denONAK

# Atxabaltan, kaleak denONAK

2025/03/26

*Herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea helburu, Udalak "Atxabaltan, kaleak denONAK" proiektua jarri du abian. Proiektu honen bitartez, Aretxabaletako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) zehaztuko da, 2026-2033 epean gauzatuko diren jarduketak zehaztuko dituena.*

**Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetu, bata bestearekin uztartuz.** Aretxabaletako Udalak badu indarrean Irisgarritasun Plan bat (2018), baina alderdi askotan ez da egokitzen egungo errealitatera, ez eta Udalak dituen baliabie mugatuetara ere. Mugikortasun Plana ere 2008an egin zen baina ez zen onartu. Gainera, plan horiek ez daude elkarrekin koordinatuta. Gabezia horiek ikusita, "Atxabaltan, kaleak denONAK" proiektuan kaleak hobetzeko jarduketak zehaztuko dira, esparru bateko zein besteko ikuspegiak batera aplikatuz.

**Epe labur eta ertainera.** Proiektu honen bitartez, datozen 8 urteetan egiteko moduko jarduketak zehaztu nahi dira. Zehaztasun honek Udalaren baliabideak neurtzea eskatzen du, eta egitasmoa horietara egokitzea: egin beharko litzatekeena bistatik galdu gabe, egin ditzakegunak jarduketa egingarri eta errealistak zehaztea da asmoa. Horretarako, arazo garrantzitsuenak eta esku-hartze eraginkorrenak lehenetsi beharko dira, jarduketen kostuak eta onurak ondo aztertuz.

**Mugikortasun-moduen lehenespena.** Mugikortasun-eredua aldatu nahi bada, ez da nahikoa herritarrei ohiturak aldatu dezatela eskatzea. Informazioa ematea edo kanpainak egitea urrats bat izan daiteke, baina benetako eraldaketa egin nahi bada, espazio publikoa ere eraldatu beharra dago. Azken urteetan herrian egin diren hainbat lanetan bezalaxe, egingo diren obrek islatuko dute proiektu honetan ezarriko den mugikortasun-moduen lehenespena: modu aktiboak lehen mailan, garraio publikoa bigarrenean eta bestelako motordun ibilgailuak hirugarrenean.

**Hiru ardatz nagusi: segurtasuna, irisgarritasuna eta osasuna.** Herri seguruagoa, inklusiboagoa eta osasungarriagoa helburu hartuta, hiru ardatz nagusi hartuko dira kontuan proiektuaren idazketan eta esku-hartzeen diseinuetan:

- Segurtasuna, istripuen aurreko babesa bermatuko duten inguruneak ezarriz. Ardatz honi dagokionez, bereziki hartuko dira kontuan zaurgarrienen beharrizanak: oinezkoak eta bizikleta erabiltzaileak batetik, haurrak eta adinekoak bestetik.
- Irisgarritasuna. Irisgarritasun fisikoaz gain (mugikortasun urriko pertsonak), irisgarritasun sentsoriala (ikusmena, entzumena) eta kognitiboa ere kontuan hartuko dira. Honen arabera, kaleetan ibiltzea eta orientatzea erraztu nahi da, desgaitasunen bat duten pertsonen baldintzei erreparatuz, bai eta hauen laguntzaile edo zaintzaileenei ere. Hitz batean, zaurgarrienen beharrizanak erdigunean jarri, guztion mesedetan izango dela jakinik.
- Osasuna. Batetik, istripuak zein kutsadura murriztuz, izan aire-partikulena, izan zaratarena. Horretarako, motordun ibilgailuetan egiten diren joan-etorrien kopurua gutxitu nahi da (beharrezkoak ez direnak batez ere), ibilgailu pribatuen abiadura baretu eta garraio publikoa bultzatu. Eta bestetik, joan-etorri aktiboak sustatu nahi dira: oinez, patinetez edo bizikletaz joatea seguruagoa eta atseginagoa bilakatuz. Hitz batean, osasungarriak diren jarrerak eta ohiturak erraztu nahi dira, aldi berean osasungarriak ez direnak zailago jarriz.




**Aniztasuna, autonomia, eguneroko bizimodua eta zaintzak, erdigunean.** Proiektu honetatik eratorriko diren lanak zehazteko, eta aurreko ardatzen osagarri, hainbat irizpide sozial ezarri dira, proiektuak zehazten eta erabakiak hartzen lagunduko dutelakoan. Esaterako, aniztasuna erdigunean jartzen denean, mendekotasunari edo pobreziari ematen zaio garrantzia; autonomia erdigunean jartzen denean, desgaitasunen bat duten pertsonen, haurren, nerabeen edo adinekoen beharrizanak nabarmentzen dira; eta eguneroko bizimodua edo zaintzak erdigunean jartzen direnean, eskola bideei edo erosketei lotutako joan-etorriei eskaintzen zaie arreta berezia.

**Partaidetza-prozesua.** Proiektu honen garrantzia ikusita, Udalak herritarren parte-hartzea nahi du txertatu prozesuan: ez ditugu hirigintzan edo mugikortasunean "adituak" behar, Aretxabaletan bizitzen "arituak" baizik. Beraz, herriko edozein auzotan bizi edota bertako kaleetan orduak ematen dituen bizilagun orori zuzenduta dago partaidetza prozesu hau, adina, jatorria eta bizi-baldintzak edozein direla ere.

- **Apirilak 1ean, Arkupe Kultur Etxean: hastapeneko talde-elkarrizketak.** Prozesua abiatzeko, hainbat herritar-talderi elkarrizketa banatan parte hartzeko gonbidapena luzatuko diogu. Elkarrizketa horietan, talde bakoitzarekin bere ezaugarri eta beharrizanetatik abiatuz, Aretxabaletako kaleen inguruan jardun nahi dugu.
  - 11:00 Adinekoak / Pertsona nagusiak.
  - 14:30 Merkatariak.
  - 17:00 Gurasoak.
- **Apirilak 8an, Arkupe Kultur Etxean, 18:30etan: diagnostikoa egiteko eta proposamenak egiteko lanketa-saioa.** Diagnostikoa egiteko eta proposamenak jasotzeko lanketa-saio irekia egingo da, herritar orori zuzendua.
- **Maiatza eta ekaina artean.** Proiektuaren zirriborroari ekarpenak egiteko bigarren lanketa-saio ireki bat egiteko asmoa dago. Honekin batera, galdetegi digital bat zabalduko da, zirriborroa aurkezteko eta hari ekarpenak egiteko aukera emango duena.

**Animatu "Atxabaltan, kaleak denONAK" proiektuan parte hartzera:** zenbat eta parte-hartze zabalagoa eta anitzagoa, orduan eta aberatsagoa izango baita proiektua. Bukatzeko, deialdia zuen inguruan zabaltzeko laguntza ere eskatzen dizuegu. **Mila esker!**

---

*Irisgarritasun Plana Mugikortasun Planarekin batera komunikatu eta landu du Udalak*
*Udal webgunea, 2025/03/26 (gazteleraz ere bai)*

# Mugikortasun Plana lantzen hasi da Aretxabaletako Udala

Mirari Altube Arrese 2025ko mar. 27a, 06:41



**Herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna "hobetzea" helburu duen *Atxabaltan, kaleak denonak* izeneko proiektuari heldu dio Udalak, Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana zehazteko, eta herritarren iritzia jasotzeko hainbat saio egingo dituzte.**

Aretxabaletako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) zehazteko lanketari ekin dio Udalak; horrek 2026-2033 epean egingo diren jarduerak jasoko ditu. "Udalak badu Irisgarritasun Plan bat, 2018koa, baina alderdi askotan ez da egokitzen gaur egungo errealitatera, ezta Udalak dituen baliabideetara ere", azaldu du Garikoitz Iturbe alkateak, eta gaineratu: "Mugikortasun Plan bat ere egin zen 2008an, baina ez zen onartu". Horrenbestez, helburua da "mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea", bata bestearekin uztartuz.

*Atxabaltan, kaleak denonak* izeneko proiektua abian jarrita, "plan egingarri eta erreal" baterako oinarriak zehaztu gura dituzte. "Plan horretan jasoko dira datozen zortzi urteetan egiteko moduko jarduerak. Horrek eskatzen du Udalaren baliabideak neurtzea eta egitasmoa horietara egokitzea", adierazi du Ion Albizuk, Hirigintza zinegotziak.

## Hiru ardatz

Mugikortasun-eredua aldatzeko espazio publikoa eraldatu beharra dagoela uste du Albizuk: "Proiektuan jasota geratuko diren lehentasunak erakutsiko dituzte egingo diren lanek: hau da, mugikortasun modu aktiboak lehen mailan –oinezkoak eta bizikletak–; garraio publikoa bigarrenean; eta bestelako motordun ibilgailuak hirugarrenean".

Proiektuak hiru ardatz nagusi izango ditu, helburu hartuta herri seguruagoa, inklusiboagoa eta osasungarriagoa izatea, eta hiru ardatz horiek izango dituzte kontuan proiektuaren idazketan eta esku-hartzeen diseinuan.

Segurtasunari dagokionez, istripuen babeserako inguruneak ezarriko dira. "Kontuan hartuko dira bereziki, zaurgarrienen beharrak: oinezkoak eta bizikleta erabiltzaileak batetik, eta haurrak eta adineko pertsonak, bestetik", dio Albizuk.

Irisgarritasunaren kasuan, irisgarritasun fisikoaz gain, sentsoriala eta kognitiboa ere hartu gura dituzte kontuan. "Kaleetan ibiltzea eta orientatzea erraztu nahi da".

Osasunean arreta jarrita hainbat esku-hartze egin gura dituzte; besteak beste, motordun ibilgailuen joan-etorrien kopurua gutxitu, ibilgailu pribatuen abiadura moteldu eta garraio publikoa bultzatu. "Joan-etorri aktiboak ere sustatu gura dira: oinez, patinetez eta bizikletaz ibiltzea, esaterako. Hala, osasungarriak diren ohitdurak erraztu egingo dira, eta osasungarriak ez direnak zaildu".

## Irizpide sozialak ere kontuan

Aurretik zehaztutako hiru ardatzak osatuko dituzte beste "irizpide sozial" batzuk kontuan hartuta, "proiektua zehazten lagunduko" dutelakoan: "Esaterako, aniztasuna erdigunean jartzen denean, mendekotasunari edo pobreziari ematen zaio garrantzia; autonomia erdigunean jartzen denean, desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak nabarmentzen dira; eta eguneroko jarduna edo zaintza erdigunean jartzen denean, eskolarako joan-etorriekin edo erosketekin zerikusia dutenetan jartzen da arreta".

## Parte-hartze prozesua

Proiektuak duen garrantziarekin jabetuta, Udalak herritarrekin batera egin gura du lanketa. "Ez ditugu adituak behar, Aretxabaletan bizi diren herritarrak baizik", esan du Maider Etxaniz teknikariak. Horregatik, edonori zabalik dauden saioak antolatu dituzte.

Lehenengoa datorren martitzenean egingo dute, eta entzute-saio bat izango da. "Prozesua abiatzeko, hainbat herritar-talde gonbidatu ditugu solasaldietan parte hartzera. Talde bakoitzarekin, bere ezaugarrietatik eta beharretatik abiatuta, herriko kaleen inguruan jardun nahiko genuke, iritziak entzuteko eta ekarpenak jasotzeko". Lau multzotan banatuta elkartuko dira haiekin: 65 urtetik gorakoak; merkatariak; gurasoak; eta gainontzeko taldeak eta norbanakoak. Haurrak ere ez dituzte ahaztu: "Haiekin beste prozesu bat zabalduko dugu, herriaren parte izanik haien iritzia ere oso garrantzitsua delako".

Apirilaren 8rako, ostera, lanketa-saioa deitu dute, proposamenak egiteko, diagnostikoa osatze aldera. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. "Maiatza eta ekaina artean proiektuaren zirriborroari ekarpenak egiteko beste lanketa-saio ireki bat egingo da, eta galdetegi digital bat zabalduko da ekarpenetarako", dio Etxanizek. Asmoa da uztailean proiektua itxita uztea eta udazkenean onartzea.

Udal ordezkariek herritarrak gonbidatu dituzte proiektuan aletxoa jartzera: "Zenbat eta parte hartze handiagoa, orduan eta aberatsagoa izango da".

*Irisgarritasun Plana Mugikortasun Planarekin batera komunikatu eta landu du Udalak*
[Goiena, 2025/03/27]

# El proyecto DenONAK sentará las bases de la movilidad y la accesibilidad futura

Un proceso participativo que se desarrollará de abril a junio alumbrará en otoño el Plan de Movilidad Sostenible para el periodo 2026-2033




El concejal de Urbanismo Ion Albizu, la técnico Maider Etxaniz y el alcalde Garikoitz Iturbe. OLIDEN

# Aretxabaleta busca mejorar la accesibilidad y la movilidad con "actuaciones factibles y realistas"

El Ayuntamiento pone en marcha el proyecto 'Atxabaltan, kaleak denONAK', que definirá con la ciudadanía las actuaciones que se ejecutarán en el período 2026-2033




El concejal Ion Albizu, la técnico Maider Etxaniz y el alcalde Garikoitz Iturbe, en la presentación del proyecto. / Anabel Domínguez.

*Irisgarritasun Plana Mugikortasun Planarekin batera komunikatu eta landu du Udalak*
*El Diario Vasco, 2025/03/26* eta *Onda Vasca, 2025/03/26*
















*Herritarren lehen saioari begira, lau kolektibo lehenetsi dira [Instagram, 2025/04/03]*
*Azpian, bigarren parte-hartze saiorako deialdia [Instagram, 2025/06/11]*

Aretxabaletako Udala

Herria ezagutu · Udala · Zure zerbitzura · Tramiteak · Aktualitatea · Gardentasuna

Sarrera / Aktualitatea / MUGIKORTASUN PLANAREN INGURUKO KONTSULTA

# MUGIKORTASUN PLANAREN INGURUKO KONTSULTA

2025/07/17



*Mugikortasun Plan berria aztergai, uztailaren 30era arte.*

Herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea helburu, Aretxabaletako Udalak apirilean "**Atxabaltan, kaleak denONAK**" prozesua jarri zuen martxan. Hilabete guzti hauetan zehar, herrian mugikortasun eta irisgarritasunaren inguruko beharrak antzemateko hiru saio burutu dira. Hona hemen zehaztapenak:

1. Herriko sektore desberdinekin talde elkarrizketak eraman dira aurrera.
2. Herritarrekin lehen parte hartze saio irekia egin da beharrak detektatzeko.
3. Aurreko bi saioetan identifikatutako beharretatik, galdetegi honetan ikusiko diren proposamen zehatzak diseinatzeko hirugarren saio bat egin da ekainean.

Orain, Udalak **galdetegi digital bat** zabaldu du, herritarrek egindako ekarpenekin diseinatutako proposamenaren inguruan duten adostasun maila ezagutzeko. Galdetegi hau **uztailaren 30era arte** egongo da zabalik.

Gogoratu proiektu honen bitartez, Aretxabaletako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) zehaztuko dela, 2026-2033 epean gauzatuko diren jarduketak zehaztuko dituena.

Proiektuaren oinarrian **hiru ardatz nagusi** daude:

- **Segurtasuna**: Istripuak saihesteko eta ingurune seguruagoak sortzeko, bereziki oinezko, bizikleta erabiltzaile, haur eta adinekoentzat.
- **Irisgarritasuna**: Mugikortasun urriko pertsonez gain, ikusmen, entzumen edo desgaitasun kognitiboa dutenentzat ere kaleak errazagoak izatea.
- **Osasuna**: Kutsadura murriztea eta joan-etorri aktiboak (oinez, patinetez, bizikletaz) sustatzea.

Proiektuak **aniztasuna, autonomia, eguneroko bizimodua eta zaintzak** ere hartuko ditu kontuan, herritar guztien beharrak erdigunean jarriz.

Animatu "**Atxabaltan, kaleak denONAK**" galdetegia erantzutera. Ez dugu hirigintzan edo mugikortasunean "adituriк" behar; Aretxabaletako bizilagunen esperientzia eta ikuspegia baizik. Zure iritzia ezinbestekoa da. Zenbat eta parte-hartze zabalagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da plana.

**Egin zure ekarpena eta bete galdetegia edo eskaneatu QR kodea gaur bertan.**

*Irisgarritasun Plana Mugikortasun Planarekin batera komunikatu eta landu du Udalak*
Udal webgunea, 2025/07/17







*Irisgarritasun Plana Mugikortasun Planarekin batera komunikatu eta landu du Udalak*
*Instagram, 2025/07/17*




Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.
II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria.
III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
**V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.**










